

Piperra baino gorriago

Lotsa ematen digun egoera batek edo gezur txiki bat esaten harrapatzeak piperra baino gorriago jartzen gaitu.

Barrua suak hartuta bezala geratzen gara, eta masailak bero-bero. Batzuei beste batzuei baino gehiago, baina guztioi gertatzen zaigu hori. Nahi gabe gertatzen zaigu, eta ezin dugu kontrolatu.



Zergatik gertatzen zaigu ordea?

Gezur txiki bat esaten harrapatzen gaituztenean edo lotsatzen garenean, gure nerbio-sistemak azaleko odolhodieiei agindu bat ematen die: «zabaldu!». Eta, zintzo-zintzo, masailetan dauden odol-hodiak zabaldu egiten dira. Zabaltzean, odol gehiago sartzen da haietan eta... odola gorria denez, gure masailei kolore gorri-gorria ematen die.

- Testuaren arabera, noiz lotsagorritzen gara?
- Nahita egiten al dugu?

- Nork ematen du agindua?
- Zergatik ikusten dira masailak gorri?
- Zu erraz lotsagorritzen horietakoa al zara?
- Noiz jartzen zara piperra baino gorriago?

2. Berridatzi esaldiak, aditzak adibidean bezala jarritz.

- Gaur auzokoek gaizki (lo egin).

Gaur auzokoek gaizki lo egin dute.

- Iaz gu Bartzelonara (joan) oporretan.
- Goizean zuek futboleak (jokatu), baina haiek saskibaloian (ibili).
- Datorren astean, ipuin-kontalaria (etorri) eskolara.
- Etorkizunean, autoek eta bizikletek (hegan egin).

- Txikitan guk ez (jakin) zapaten lokarriak lotzen.
- Zuek orain oso gazteak (izan).

3. Aukeratu hitz egokiak eta berriatzi esaldiak.



- Zooan animali/animalia asko bizi dira.
- Afaltzeko, arrautz/arrautza frijitua jaten du aitak gauero.
- Txinan bada basamortu/basamortua bat, Gobi izeneko.
- Etxeko trastelekuan gauz/gauza zahar asko dauzkagu gordeta.